

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a / 574. zenbakia

AGENDA XXI

INGURUMENAREKIKO
KONPROMISOA
HARTU DU UDALAK


EUSKARA: JUSTIZIA EUSKALDUNTZEKO MANIFESTAZIOA/6 • KULTURA: JARDUNEKO BERTSO ESKOLA/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: BENITO CANTERO


ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK



Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



HORMA ARMAIRUAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



Gure Zerbitzuak:

Mireia Alberdi
dietista eta nutrizionista

- Gorputzeko koipe portzentajearen neurketa eta pisuaren kontrola.
- Banakako tratamendua
- Jarraipen pertsonalizatua

Jesus Huarte
mediku naturista
Elkargokide zkia.: 3.840

- Diagnostikoa:
- Iridologia (Irisaren ikerketa)
 - Laserpuntura



Kruz Gallastegi 7 Tel. 943 76 46 01

ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukazu sagardotegira juateko ohiturarik?



MERCHE MARTINEZ
42 urte

Ez, ez daukat ohiturarik sagardotegira juateko. Iñoiz egon naiz, eta gustatzen jat hango girua eta baitta menua eta sagardaua bera be, baiña ez naiz sarritan juaten dien horretakua.



MAMEN PEREZ DE MENDIOLA
36 urte

Iñoiz jua izan naiz; aurten, adibidez, Iruñeko batera. Bertako girua gustatzen jat eta jatekua be bai. Kuadrillan juanez gero politta izaten da sagardauan billa jaitzite hori.



KEPA BISQUERT
37 urte

Kuadrillakuek urtero antolatzen dabe irteeria eta badaezpada autobusian juaten gara, gaiñera. Dana gustatzen jat: sagardotegiko girua, janarixa, sagardaua bera.



JOSE CASTRO
56 urte

Bai, urtian behin juaten gara, eta aurtengorako be eguna ipiñitta daukagu Astigarragara autobusian juateko. Txuleta, bakalaua eta sagardua menua gustatzen jat gehixen.



ROSI IBARGUREN
56 urte

Bai, urtian hiru bat aldiz juaten gara. Jun dan domekan egon giñan aurten lehenengoz. Gehixen bakalau takuak gustatzen jat, baiña batetik bestera asko aldatzen da gatz puntua.



IBON OSA
27 urte

Gustatzen jat, eta aurten egon ez naizenez, badaukat gogua juateko. Urtian buelta bat behintzat egitten dogu. Orokorrian sagardotegitik dana gustatzen jat: jatekua, edatekua eta girua.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PAILAZOEN IKUSKIZUNERAKO SARRERAK Neskatala koadrila bat etorri zitzaigun astelehenean BERRIGARARA. Domekan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak ikustera joan ziren. Sarrerak agortu zirela eta jende asko kanpoan geratu zela esan ziguten. Hain zuzen ere, sarreren salmenta gaizki antolatu zutela eta pilotalekuan sarrera gehiago saltzeko lekua zegoela salatu nahi zuten. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

EHEk deitutako manifestazioa

Justizia euskalduntzeko EHE taldeak deitutako manifestazioa izango da zapatuan Bergaran.

KIROLA /10

Liderra bisitari Ipintzan

Lehen erregional mailako taldeak Elgoibar taldearen aurka jokatu du zapatuan, Ipintzan.

KULTURA /12

Bertso eskola

Aurtengo ikasturtean 24 lagun dabilta Jardun elkartearen Potoplost bertso eskolan.

ASTEKODATUA

-2

GRADU ARATUSTE-MARTITZENEAN

Aratuste hotzak izan ditugu. Jai giroak behera egin duen bezala, tenperaturak ere benetan hotzak izan dira. Luis Mari Agirreren datuen arabera, Aratuste-martitzenean -2°C izan genituen.

BESTEKEESANA

“ Nazio Etabaidagunak Eibarren egindako ekarpen foroan ikusitako lan gogoari, seriotasunari eta konpromisoari erantzungo diogu, eta bi proposamenen txostenetan ahalik eta aniztasun handiena lortzea dugu helburu”
MAITE ARISTEGI / Nazio Etabaidaguneko bozeramailea 'Berria'/04-02-22

“ Errege katolikoan politikeak jauntxoaren botere politikoa makaldu egin eban, maila ekonomikoa mantendu arren. Beraz, urietan txertatu ez ziran jauntxoek galtzaile urten eban. urietan integrau ziranek, bestetik, iturri ekonomiko bariak lortu zituen”
JAIONE AGIRRE / EHuko historia irakaslea 'Anboto'/04-02-20

BERAIEKDIÑOĒ/ Ainhoa Agirreazaldegi



Su-eten higuin garria

Nardagarria, okaztagarria, higuin garria, nazkagarria, hastan garria omen ETAK Kataluniarako iragarri su-eten.

Politika egiten eta gizarteari hitz egiten uzteko behin eta berriro eskatzen duen hori, sutan ikusi nuen su-etenaren berri izan eta, arrapalada batean, deklarazioak egitera irten zenean.

Eta niri, galderak baino ez zetozkidan burura:

Zergatik atera zen hain agudo deklarazio horiek egitera? Zergatik egoten da beste hainbatetan isil-isilik, inongo deklaraziorik egin gabe?

Zergatik haserretu zen hainbeste? Ba al da Katalunian su-etenik gabe hobeto bizi zen inor? Su-etenarekin, ez al die ETAK politikoei eta gizarteari hitz egiten utzi? Su-eten, ez al zen hori Ibarretzek etengabe eskatzen zuena? Ez ote zizkion, haserretu ordez, Kataluniari zorianak eman beharko?

Su-eten, ez ote da izan politikari batek iritzi guztiak entzuteko egin duen ahaleginaren ondorio?

Zergatik ez du Ibarretzek ETArekin hitz egin nahi, baina ez du inongo arazorik Espainiako printzearekin, Aznarrekin, Sanzekin, edo Mayor Orejarekin argazki batean azaltzeko? Zergatik agertzen da argazki horietan irribarretsu eta ETaren su-eten baten ondoren nazka-aurpegiarekin?

Ez al da okerragoa Estatuak eta politikariak bultzatutako terrorismoa eta samina?

Ez al da okerragoa Estatuak eta politikariak sortu eta bultzatutako terrorismoa eta samina, borrokalari talde batena baino?

Zer espero dezaket, horrelako deklarazioak egiten dituen lehendakari batengandik?

Ibarretxeri berari ere egingo nizkioke galdera hauek, baina badakit zer erantzungo didan: eskerrik asko herri honen etorkizunaren eraikuntzan parte hartzeagatik. Ni bai nagoela haserre!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizabar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 27**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 28**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 29**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 1**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 2**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 3**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 4**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Antulutorioa (banda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRIAK

- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirolegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30etan eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30etan eta 12:30etan.

OHARRAK

1978AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1978an jaiotako bergararren bazkaria martxoaren 13an Txarrantxa jatetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1900 9007 0394).

SAGARPEREN BATZARRA
Sagarpe elkartearen urteko batzarra izango da martxoaren 5ean, 19:00etan. Ondoren, 21:30ean, bazkideek afaria egingo dute. Izenematea elkartean bertan.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, martxoaren 3an, Seminarioan, 18:30etik aurrera.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek irrati ikastaroa egingo dute bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Arrizuriagan, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoak, berriz, bihar, zapatua, elkartuko dira Udal Euskaltegian, 16:00etan 12-14 urte bitartekoak eta 18:00etan 14-16 urtekoak.

TXAPLIGU TALDEAREN IRTEERA
Txapligu taldekoek irteera egingo dute martxoaren 19tik 21era Eginoko aterpetxera. Prezioa 40 euro da. Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da.

TXISKRILABIKOAK ZARAUZTERA
Txiskrilabi taldekoak Zarauzko Etxe Txiki aterpetxean izango dira martxoaren 19tik 21era. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Martxoaren 5erako Astigarragako Rezola sagardotegira irteera antolatuta du Jardunek. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioa (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Lau pintorek Japonian egin zuten erakusketa

Rikardo Azkargorta eta Bingen De Pedro bergararrek, Pello Alberdi elgetarrak eta sasoi hartan Elgetan bizi zen Yoshiyasu Zenitani japoniarrek margo erakusketa kolektiboa egin zuten Japonian. Besteak beste, Kobe eta Osaka hirietan erakutsi zituzten euren koadroak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kaskarrazur"



- Buruhezurra.
Ez igo teillatura kaskarrazurra apurtu nai ezpozu.

GORKA ORTEGA

ASTEKOPELIKULAK

'LAS CHICAS DEL CALENDARIO'

ZUZENDARIA: NIGEL COLE. AKTOREAK:
HELEN MIRREN, JULIE WALTERS.

HARIA. Yorkshire emakume talde batek zeresana emango duen egutegi bat egingo du leuzemiaren aurkako fundaziorako.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNUAZIOA: ●●●●●



HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 24 **-2 °C**

MAXIMOA
Domeka, 22 **15 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **48,5 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	12 °C	2 °C	2,9 l/m²
Eguena, 19	6 °C	3 °C	16,8 l/m²
Egubakoitza, 20	4 °C	0 °C	10,1 l/m²
Zapatua, 21	6 °C	1 °C	11,8 l/m²
Domeka, 22	15 °C	0 °C	4,1 l/m²
Astelehena, 23	6 °C	0 °C	1,6 l/m²
Martitzena, 24	6 °C	-2 °C	1,2 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

'LAS INVASIONES BÁRBARAS'

ZUZENDARIA: DENYS ARCAND. AKTOREAK:
REMY GIRARD, STEPHANE ROUSSEAU.

HARIA. Remy 50 urteko gizon bat da, eta gaixotasun larria du. Bere seme Sebastianekin aspaldian ez du harreman onik, baina semeak aitaren lagun onenak biltzea lortuko du... Oscarretarako izendapena lortu du filmak.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Egunean, martxoaren 4an, 20:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



lbararai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

INGURUMENA/2006rako, EAEko 5.000 biztanletik gorako udal guztiek Tokiko Agenda XXI diseinatuta izan beharko dute

Udalak garapen jasangarriaren aldeko urratsak emateko hitzarmena sinatuko du

EDU MENDIBIL

Bergarako Udalak Tokiko Agenda XXI betetzeko eta garatzeko konpromisoa hartu berri du. Debagoieneko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Diputazioak garapen jasangarriaren aldeko hitzarmena sinatuko dute aurki.

1992an Rio de Janeiron egindako Lurrari Buruzko Gailurrean, garapen jasangarriaren aldeko hainbat irizpide eta konpromiso finkatu zituzten, Agenda XXI ize-narekin. Helburuetako bat zera zen: garapena, berdintasuna, solidaritatea eta demokraziaren ize-nean, Agenda XXI delakoa mende honetako agenda politiko bilakatzea. 1994an, Alborg-en, Danimarkan, hiri iraunkor europarren lehen konferentzia egin zuten, eta ekoizpen eta kontsumo ereduetan egin beharreko aldaketak izan zituzten aztergai. Garapen iraunkorraren aldeko urratsak behetik gora emateko beharra ikusi zen; hortaz, tokiko administrazioetik hasi eta maila guztietara heldu arte.

Hori dela eta, Jaurlaritzak hartutako konpromisoaren arabera, 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanletik gorako udal guztiek (banaka zein eskualdeka) Tokiko Agenda XXI diseinatuta izan beharko dute. Esan bezala, Bergarako Udalak eta Mankomunitateko gainerako herriek Udaltalde 21 Debagoiena osatuko dute plana garatzeko.

BIZI KALITATEA ETA INGURUMENA

Bizi kalitatearekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotuta dago Tokiko Agenda XXI. Hiru



Besteak beste, ingurumena zaintzeko neurriak hartzea eta energia berriztagarrien erabilpena bultzatzea dira Agenda XXI delakoaren helburuetako batzuk.

Mankomunitateak Agenda XXI garatzeko konpromisoa hartuko du

ardatz nagusi ditu: ekonomia, gizartea eta ingurumena. Igor Oiarbide Bergarako Udaleko Ingurumen batzordeburuaren

esanetan, ingurumen arloan dago lan egiteko premia handien gure herrian: "Dauzkagun baliabide naturalak zaindu behar ditugu, gure ondoren etorriko direnei begira. Ur kontsumoan, kutsadura aldetik eta parke eta basoen kudeaketan egoera zer-nolakoa den aztertuko dugu datorren urte eta erdian. Horretarako, aholkulari enpresa baten laguntza izango dugu. Horren ondoren, behin diagnosis egin eta gero, hiruzpailau urte ra begira jarduera plana zehaztuko da. Jarduera plana

Agenda XXI egitasmoak hiru ardatz nagusi ditu: ekonomia, gizartea eta ingurumena

betetzeko Herritarren Partaide-tzarako Foroa sortu nahi dugu, sentsibilitate guztiak batuz eta herritarren iritzia jasoz".

ENERGIA KONTSUMOA ZAINDU

Garapen iraunkorra lortzeko, besteak beste, kutsadurari aurre egitea, oztopo arkitektonikoak ezabatzea, hirigintza arloan egiten diren lanak planifikatzea eta energia kontsumoa zaintzea funtsezkoa izango da. Hain zuzen ere, energia garbi, iraunkor eta berriztagarriak erabiltzen dituzten proiektuak sustatzea izango da plangintzaren zereginetako bat. Helburu nagusia zera da: ingurumen hobekuntzarako urratsak ematea.

Elkarrizketa bultzako sinadura bilketa egingo du bihar Elkarrik

E.M.

Bakearen, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko Elkarrik giza erakundeak sinadura bilketa egingo du bihar, zapatua, Bergaran. Elkarrik sinadura batzeko kanpainari ekin zion urrian, eta helburua da alderdien mahai anitz baten alde 100.000 sinadura lortzea. Elkarrik bultzatzen ari den sinadura bilketa kanpaina martxoaren 28an bukatuko da.

Bihar, zapatua, goiz eta arratsalde batuko dituzte sinadurak Bergaran: 09:00etatik 11:00etara Oxirondoko azokan eta Zurraderoko azoka txikian eta 11:00eta-

tik 13:00etara San Martin plazan eta Simon Arrieta plazan izango dira Elkarriko kideak; arratsaldean, berriz, San Martin plazan, Simon Arrietan eta Osintxun egingo dute sinadura bilketa, 18:00etatik 20:00etara.

Biharko sinadura biltetarako boluntarioak behar ditu Elkarrik. Interesatuak 660 40 64 76 zenbakira dei dezakete.

ESKAERA ESKUBIDEA

Esan bezala, eskaera eskubidea erabiltzeko, eta martxotik aurrera, Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan elkarrizketarako mahai bat proposa-

tzeko 100.000 sinadura lortu nahi dira. Bergarako kasuan, biharko sinadura batzean 400 bat herritarren atxikimendua jaso nahi dute.

Urtarrilaren amaierara arte 50.000 sinadura inguru batu ditu Elkarrik. Martxoaren 14ko hauteskundeen ondoren ziklo politiko berria hasiko da, eta, Eskara Eskubidea erabiliz, indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarrizketa bultzatu nahi ditu Elkarrik. Biharko sinadura biltetaren gaineko eta Elkarriko beste ekimen batzuen gaineko informazioa www.elkarri.org webgunean jaso dezakezue.



Giza eskubideak eta herri boronda Diálogo y acuerdo entre todas l

Alderdien mahai anitz baten alde 100.000 sinadura lortu nahi ditu Elkarrik.



Debagoieneko hainbat taldek eta banako ugari egin du bat EHEren aldarrikapenekin.

MONIKA BELASTEGI

GIZARTEA/ EHE taldeak deitutako manifestazioa izango da zapatuan Bergaran, 18:00etan

Justiziaren euskalduntzea aldarrikatzeko manifestazioa

EDU MENDIBIL

Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, justiziaren euskalduntzea aldarrikatzeko manifestazioa izango da bihar, zapatua, Bergaran. Hainbat taldek bat egin dute deialdiarekin. Manifestazioa 18:00etan aterako da San Martin plazatik.

Debagoieneko Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldeak euskaraz epaitegien jasaten duen egoera salatu zuen aurreko zapatuan kultur etxean, prentsaurrekoan. Bergarako epaitegiaren kasuan, EHEko kideek aditzera eman

dutenez, euskaraz bizi duen egoerak ez du hobera egin azken urteotan: "Betebehar judizialak gaztelania hutsean eta kasu onean itzultzailearen laguntzarekin egin beharra izaten ditugu. Euskaraz zapalketa egoera bizi du epaitegiaren gaur egun".

EGOERAK HOBERA EZ EPAITEGIETAN

Orain dela bost urte, Bergarako epaitegian euskaraz bizi duen egoera larriaz jabeturik, EHEko kideak epaitegiko zeregina euskalduntzeko ahaleginetan hasi ziren. Hala ere, ordutik hona gauzak ez dira aldatu. EHEk emandako datuen arabera, epaitegian dauden lau epaileak erdaldunak

dira. Hori konpontzeko funtzio publikorako euskaraz jakitea derrigorrezkoa izatea eskatzen dute: "Itzultzailearen figura ez da soluzioa. Gure herrian gure hizkuntza erabili ahal izatea eskatzen dugu", esan digu Maite Aizpirik. EHEk euskararen presentzia aldarrikatzen jarraitzen du, eta hileroko azken zapatuetan protesta ekitaldiak egiten ditu Bergarako epaitegiaren aurrean, 12:00etan.

Bihar, Bergaran, besteak beste, Iñaki Lasa Euskalgintzako kidea, Lierni Iztueta EHEko ordezkaria eta Larraitz Ugarte abokatua izango dira. Gernikan ere manifestazioa deitu du EHEk.

Miguel Altuna, nabarmenduta

Kalitatearen inguruko Europako Astearen azken jardunaldietan, Miguel Altuna ikastetxeak 5 S-en metodologia ezartzeagatik aipamen berezia jaso zuen. Euskal iterrakundeak Euskal Herrian kalitatezko metodologia hori ezarri duten bost enpresa nabarmendu zituen eta horien artean ikastetxe bakarra zegoen, Miguel Altuna hain zuzen. Euskalitek nabarmendutako beste lau enpresak Ulma Forja, Vicrila, Mecanizados Iriarte eta Neco izan ziren.

Manu Azkarateren aldeko mozioak eztabaida piztu du

E.M.

Asteleheneko udalbatzarrean eztabaida piztu zen otsailaren 16an onartutako Manu Azkarate presoaren aldeko mozioa zela-eta. Bergara Aurrerako kideek eskatu zuten Udalak elkarretaratzea deitzea.

Bergarako udalbatzak Manu Azkarate tolosar presoaren aldeko mozioa onartu zuen joan zen astearen, otsailaren 16an. Azkarate lehenbailehen askatzeko exijitza, une zail honetan bere sendiari elkartasuna adieraztea eta giza eskubideen aldeko mobilizazioetan parte hartzea onartu zuten EAJ-EA, Aralar eta PSE-EE alderdiek.

BERGARA AURRERAREN MOZIOA

Asteleheneko (hilak 23) udalbatzarrean, eskaera eta galderetan, Mikel Eguren hitza eskatu zuen, Bergara Aurrera taldearen izenean. Eguren zera esan zion alkateari: "Manu Azkarateren aldeko mozioa aurkeztu genuen, baina aurreko astean, gurea beharrezko zuek aurkeztutako beste

mozio bat bozkatu zenuten. Txilotzen dugu Azkarateren aldeko mozioa onartzea, baina Bergarako Udalak Azkarateren aldeko elkarretaratzea deitzea eskatu genuen, eta zuen testuan ez zen horrelakorik jasotzen. Zoritzarrez, Azkarateren egoerak txarrrera egin du azken egunotan. Alcalako espetxera eraman dute eta. Dispersioaren arazoak hor jarraitzen du; Kanto Zaragozara eraman berri dute. Dispersioa dela-eta, hitzetik ekintzetara pasatzeko eskatzen diogu Bergarako Udalari".

Victoriano Gallastegi alkateak zera erantzun zion: "Zuen mozioak ez zituen hainbat baldintza betetzen eta horregatik ez zen aztertu. Gurea aurkeztu eta hura bozkatu genuen. Dispersioarekin ez gaude ados eta Azkarateren jaioterrian, Tolosan, sortutako plataformarekin bat egiten dugu eta handik bideratuko dira beharrekotako ekintzak". Jesus Mari Garitanok ere hitza eskatu zuen udalbatzarrean, eta alkateari presoaren sakabanaketaren gaiari "astindu" bat emateko eskatu zion.

LABUR

Posta bidezko botoa tramitatzeko aukera Batzokian, Arranoan eta Alkartetxean

EAJk aditzera eman duenez, Batzokian, posta bidezko botoa tramitatzeko bulegoa 11:30etik 12:30era eta 19:30etik 21:00etara izango da zabalik aste barruan; Batasunak ere martxoaren 4ra arte izango du zabalik bulegoa Irizar 2ko Arrano zaharrean; eta EAko Alkartetxea, berriz, astelehenean egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era izango da zabalik.

Espainiaren eta Frantziaren inposaketaren aurkako elkarretaratzea, Batasunak deituta

Euskal Herria aitortu, espainiar eta frantziar inposaketari ez lelopean, Batasunak elkarretaratzea egingo du astelehenean, martxoaren 1ean, San Martin plazan, 19:30ean.

Bestalde, Batasunak hauteskundeetarako duen planteamendua azalduko du bihar, zapata, Olosa dorrearen eta udaletxearen arteko gunean, 13:00etan. Honekin batera, Espainiako estatua salatzeko sinadura bilketarekin aurrera egingo dute.

Dantza modernoko ikastaroa Kirol Zerbitzuaren eskutik, martxoaren 3an hasita

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, Maite Otaola dantzari beregararrak dantza modernoko ikastaroa emango du, martxoaren 2tik apirilaren 7ra bitartean. Eskolak aste barruan izango dira, martitzenetan 19:00etatik 20:30era eta eguenetan 19:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere.

Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek Kirol Zerbitzura jo dezakete izena ematera. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

Jardunek sagardotegira irteera antolatu du datorren egubakoitzera, martxoak 5

Jardunek datorren egubakoitzera, martxoaren 5erako, Astigarragako Rezola sagardotegira joateko irteera antolatu du. Jardunekok Soraluzeko Pil-Pilean elkartekoekin batera egingo dute irteera. Irteeraren prezioa 29 euro da, bidaiaria eta afaria barne. Jardunekok bazkideendako, ikasleendako eta langabeendako, 26 euro izenematea Kortazarren, Pol-Polen edo Arranon.

Euriari, elurrari eta hotzari aurre eginez, mozorroak eta umorea Aratusteetan

E.M.

Euria, elurra eta hotza izan ditugu Aratusteetan. Martitzenean bisitari izan genituen dantzari brasildarrak zur eta lur geratuko ziren herrian egunotan izan dugun tenperaturarekin. Rio de Janeiroko epeltasuna faltan sumatuko zuten Rio Samba Show taldekoek, ziur. Hala ere, giroa piztea lortu zuten, eta Hamelingo txirulariaren antzera, herriar dezentek dantzan eraman zituzten atzetik dantzan. Jendea segituan berotu zen brasildarren erritmoekin. Hala ere, Aratustemartitzeneko giroak dezente behera egin du eta gaztetxo gehiago faltan bota genituen.

MOZORROAK SAN MARTIN PLAZAN

Ohikoa denez, martitzenean, arratsalde partean mozorro-tako jendea San Martin plazan elkartzen hasi zen. Hutsik egiten ez duen zenbait jende han zen, giroa piztu nahirik; benetan txalogarria euren umorea eta irudimena mozorroak lantzeko orduan.

Gauean, tenperaturak behera egin zuen neurrian eta sardinaren lurperatzearen ondoren, Aratusteei agur esateko ordua heldu zen. Baten batzuk hasiko ziren dagoeneko datorren urteko mozorroa makinatzen. Ordu-ra arte, beraz!



Arrantzale koadrila sarean harrapatutako arrain txikiak.



Deba ibaian gora itsasontzian etorriko ziren hauek?



Hippie koadrila honek bakearen aldeko kanpaina egin zuen martitzenean.



Brasilgo dantzariak ikusmina piztu zuten kaleetan.



Katu misteriotsuak.



Adina ez da oztopo Aratusteetako giroan murgiltzeko.



Karibe aldeko pirata hauek ez zuten ezagutzen Euskal Herriko neguko hotza.



Pipi Galtzaundi hirukiak lagun zingaroekin.



IRATXEK ETA JONEK BRASILERA BIDAIA IRABAZI

Iratxe Azkarate eta Jon Iparragirre senar-emazteek Brasilerara joateko bidaia irabazi zuten aurreko egunean, ETBko *Sorginen laratza* saioan. SMS bidezko mezuen lehiaketa antolatu zuten Xabier Euzkitzek eta konpainiak, eta Aratusteak hasiberriak zirenez, Brasilgo Aratusteen gainean ere jardun zuten. Ikusleen artean Brasilerara joateko bidaia zozketatu zuten. Esan bezala, Jonek eta Iratxek eskuratu zuten saria, eta apiriletik ekainera bitartean hamar egunez Brasilerara joateko aukera izango dute. Oraindik ez dute erabaki noiz joan, baina mailetak gertu izango dituzte laster... Ondo ibili, bikote!!!



BI UDALTZAIN GEHIAGO

Bergarako Udalak bi udaltzain kontratatuko prozedurari ekingo dio laster. Momentuan 14 udaltzain dira Bergaran, eta Estatu aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, beste bi udaltzain hartzeko lehiaketa jarriko da martxan. Interesatuak dagoeneko eman dezakete izena udaletxeko idazkaritzan. Kontratatuko dituzten bi udaltzain berriak Gabonak aldera hasiko dira herrian lanean.



ARANZADIKOAK NAFARROAKO UNIBERTSITATEAN

Aranzadi Ikastolako DBH0ko bigarren mailako ikasleak Iruñean izan ziren aurreko astean. Guztira, 35 bat lagun joan ziren bertara, Nafarroako Unibertsitateko eskaintzaren berri jasotzeko. Etorkizunean egin beharreko ikasketak aukeratu beharko dituzte laster, eta ez dago gaizki hango eta hemengo eskaintza gertutik ezagutzea. Argazkian, Aranzadiko ikasleak Manu Arregi irakaslearekin, Iruñean.

MINGAINARITIRAKA



Ander Berraondo

GISASOLA BURDINDEGIKO

Lau urte daramatza Anderrek familiako burdindegian lanean; lantegian ere lan egindakoa da, eta bere esanetan, askoz gogorragoa da lan hori. 26 urte dauzka eta Mekanika eta Elektrizitateko ikasketak dauzka eginda.

Noiztik zabilta dendan lanean?

Orain dela lau urte hasi nintzen; lantegietako lana zer zen ikusi nuen, eta egia esan, ez zitzaidan gehiegi gustatu. Negozioa familiarrena denez, eta aukera neukanez, dendan hastea erabaki nuen.

Esan didate dendari sena daukazula.

Ez dakit, bada; nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz, besterik ez. Beharbada, kontua da nire lana gustatzen zaidala.

Zer behar da dendari ona izateko?

Bezeroak ondo tratatzea, gauzak behar bezala azaltzea eta jatorra izatea.

Etxeko konponketa txikietan-eta, esku ona daukazu?

Bai; gure etxean, esaterako, argindarrarekin lotutako lan guztiak egin izan ditut, apalak jarri, arropa eskegitzekoa... Iturgintzan, baina, ideiarik ere ez daukat.

Bricomania saioa, hortaz, zuretako modukoa da.

Bada, ez, ez zait batere gustatzen.

Eta etxeko bestelako lanetan ere esku ona duzu?

Ez, horretan ez; egia esan, ez ditut egiten.

Zer da zure laneko gauzarik onena? Eta txarrena?

Jendearekin harremana izatea. Txarrena, berriz, egutegia; zapatu arratsaldeak eta domekak bakarrik ditugu jai, eta zubirik ere ez dugu; guretako, egutegiañ gorritz dauden egunak bakarrik dira jaiegunak.

Futboleko oso ondo jokatzen zenuen. Gaur egun, jarraitzen duzu, jokatzen ez bada ere, jolasten?

Lagunekin eta, futbitoan jokatu izan dut, baina, bestela ez, ez dut jarraitzen; urte askoan ibili nintzen futboleko gogor, eta oso erre-ta bukatu nuen.

Zein talderen jarraitzailea zara?

Realarena esan beharko dut, baina, egia esan, sekula ez zait gehiegi gustatu partiduak ikustea; jokatzea bai, baina ikustea...

Jokalari gustukoena?

Aitor Lopez Rekarte.

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Pozik bizi izatea; ez da gutxi, ezta?

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAK BERGARAN

MARIJO MARTINEZ

33 URTE / KATALUNIARRA / IAZKO APIRILEAN ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Bergaran, asko harritu nau umeak kalean bakarrik ibiltzen direla ikusteak”

AINZANE IRIZAR

Hilabete batzuk besterik ez darama Bergaran bizi izaten, eta oraingoz, behintzat, oso gustura dago Marijo. Bartzelonakoa da, hiriburukoa bertakoa. Baina ez pentsa Bartzelonatik etorri denik Bergarara, ez horixe. Izan ere, Mexikon bizi izan da hiru urtez.

Zelatan iritsi den Bergarara? Bada, bere senarra, Mikel Gantxegi, bergararra da. Uda baten ezagutu zuten elkar, auzolandegi batzuetan. Mikel Bartzelonara joan zen bizi izatera; Elay taldeko enpresa baten lan egiten zuen. Enpresa horretan, Mexikora joateko aukera izan zuen, proiektu bat martxan jartzera. Aukera hori aprobetxatu eta Marijorekin batera joan zen.

Hiru urtez bizi izan dira han-txe. Celaya hirian, apirilean Bergarara etorri ziren arte. Horrelaxe gogoratzen ditu garai haiek Marijok: “Oso esperientzia ona izan zen Mexikon bizi izatea. Lehendabiziko urtea, egia esan, gogorra egin zitzaidan, hara moldatu nintzen arte; beste bi urteak, baina, oso gustura egon ginen han; atera kontuak, bi joan ginen eta hiru itzuli ginen”. Hirugarren hori Uxue da, Marijoren eta Mikelen alabatxoa. Urte eta erdi dauzka orain, eta Mexikon jaio zen.

“Oso argi neukan Bergara bezalako herri bat nahi nuela umearendako”

Mexikon bizi zirela, ordurako erabakita zuten Bergarara etortzea bizi izatera. Horrelako herri baten bizi nahi zutelako azaldu digu: “Gainera, ume batendako horrelako herri bat nahi nuen”.

MEXIKOTIK, BERGARARA

Bergaran zer moduz dagoen galdetu eta ama bezala erantzun behar diola esan digu: “Ume txiki batekin iritsi nintzen hona, eta egoera horretan, dena da ezber-

dina, baita herria ikusteko era ere”. Ama den aldetik ezagutzen ei du herria. Esaterako, koadrilarekin ibiltzea, parrandak eta horrelakoa gutxi ezagutu ditu; aldiz, peditrak, ze eskola dauden, umeak dituzten gurasoak..., horiek bai, horiek ezagutu ditu.

Aipatzekoa da, gainera, euskara ikasten diharduela buru-belarri. Oraindik ez ei du asko ikasi, baina, saiatu, behintzat, saiatzen da.

Badago kontu bat Bergaran harritu egiten duena: “Jende guztiak daki zeinen emaztea naizen, eta horrek barregura handia ematen dit, oso bitxia iruditzen zait. Ni, gainera, Bartzelonakoa naiz eta han ez da horrelakorik gertatzen, han ez zara inor”.

Baina badago harritu duen beste gauza bat ere; horrelaxe azaldu digu: “Umeak kalean bakarrik ikusteak harritu egin nau, eta horixe da, gainera, Bergaran gehien gustatu zaidana”.

Dena dela, badago gustatzen ez zaion gauza bat; garraio publiko eskasa, hain zuzen. Bartzelonan ohituta dago hara eta hona ibiltzen, trenean, autobusean...

Gustura dago Bergaran, baina, jakina, Kataluniaren hutsunea ere nabaritzen du: “Itsasoaren usaina faltan sumatzen dut, batez ere; baita hango mugimendua eta eten-gabe jende ezberdina ikustea ere; han egun guztiak ezberdinak dira”.



IRURAK MARGOAK DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 616 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURREERA ERAIKINA
Urtzaile 1 solairua, EIBAR



HALCOURIER

MEZULARITZA-ZERBITZUA

Partikularrendako eta industriendako
eguneroko zerbitzua

Juan XXIII Plaza
Tel.: 943 76 98 51 Faxa: 943 76 98 52

FUTBOLA

Erregional mailako taldeak Elgoibar izango du bisitari bihar, zapatua

Joaneko partiduan 2-1 galdu zuten arren, etxean jokatzeko dutenez irabazteko asmoz zelairatuko dira Bergarako jokalaria

IRATI AGIRREAZALDEGI

Erregional mailako taldeak Elgoibarren aurkako partidua izango du bihar, zapatua, 18:30ean, Ipintzan. Joan zen asteko atsedeneren ostean, gogoz aterako dira Andoni Azkargortaren mutilak, eta hiru puntuak eskuratzea izango dute helburu.

Sailkapen orokorrean hamabigarren postuan dira erregional mailako mutilak. Guztira 16 taldek jokatzeko dute euren mailan, eta atzeko tokietan badaude ere, mailari eusten saiatuko dira. "Bergara Kirol Elkarteko talde nagusirako jokalaria gertatzea da gure helburu nagusia, baina, bide batez, orain gauden mailari eusteko ahalegina egingo dugu", esan digu Andoni Azkargorta erregional mailako taldearen entrenatzaileak.

Maila berria da hau bergararentzat. Izan ere, iazko denboraldira arte erregionaleko bigarren mailan jardun zuten. Azkargortaren esanetan, "talde oso gaztea da gurea, jokalaria asko gazte taldetik etorritakoak dira. Gure mailako ekiporik gazteena dela esatera ere ausartuko nintzateke. Esperientzia falta nabari zaie jokalariei, eta faktore horrek eragina izan du, hain zuzen ere, hainbat partidu galtzeko".

ELGOIBARTARREI BELDURRIK EZ

Elgoibartarrak izango dituzte aurrez aurre erregional mailako Agorrosinen, baina ez omen diote beldurrik talde horri: "Elgoibarko erregional mailako ekipoa ona da eta sailkapen orokorrean



Andoni Azkargortaren mutilak sailkapen orokorreko hamabigarren postuan daude.

zazpigarren tokian dago. Izan ere, behe mailako taldeen jokoa asko lantzen du bertako klubak. Hala ere, guk etxean jokatzeko dugu eta hori, dudarik gabe, abantaila da guretzat; beraz, beldurrik gabe aterako gara zelaira", esan digu Andoni Azkargortak.

Joaneko partiduan, Elgoibarren, 2-1 galdu zuten bergararrek elgoibartarren aurka, baina partidua azken unera arte ongi joan zen. Beraz, ikusitakoak ikusita itxaropentsu daude zapatuko partidurako ere.

"Erregional mailako taldea bere mailako ekiporik gazteena da, eta esperientzia falta nabari zaio"

Ekipoa oro har ongi dago eta gogor saiatuko da joko ona egiten partidua irabazteko. "Taldeko sei jokalaria min hartuta dau-

de, baina zapatuako prest egongo direla uste dut. Hala ere, Aimar Leibarrek eta Zigor Aiukarrek jokatu duten oraindik ez dago argi; lesionatuta daude eta baliteke ez sendatzea", adierazi digu Andoni Azkargortak.

Denboraldia aurrera doan neurrian, etxeko partiduetan puntuak eskuratzeko ahalegina egingo dute, horrek ahalbidetuko baitie azken postuetatik aldentzea. "Mutrikuko taldearen eta Ostadarren kontra jokatu dugu jadanik, eta horiek dira gure maila-

ko ekiporik gogorrenak. Gaintzakoak maila bertsuan gauden; beraz, edozer gerta daiteke", esan digu entrenatzaileak.

PREFERENTE MAILA

Zapatuan, hala ere, goiztiarrenean lehen mailako kadeteak izango dira: 12:30ean hasiko da euren partidua. Donostiako Santo Tomas Lizeoaren aurka.

Arratsaldean, erregionalekoen aurretik, preferente mailakoek jardungo dute Ipintzan bertan: 16:30ean, Hondarribiako taldearekin aurrez aurre. Azken jardunaldian Oreretako Touring-ekin aurka 4-0 galdu zuten, joko kasikarra eginda. Beraz, irabazi nahi badute, behintzat, joko hobearen erakutsi beharko dute etxean.

Zapatuko jardunaldia amaitzeko, emakumezkoen senior mailakoek jokatu dute, 20:30ean. Gasteizen kontra.

Domekan, berriz, partidua bakarrik izango da Ipintzan. Oho-rezko mailako gazteek Añorgarrek izango dituzte aurrez aurre, 12:00etan.

DERBIA ANTZUOLAN

Begarako gainontzeko taldeek kanpoan neurtuko dituzte indarrak. Lehen mailako gazteak Donostiara joango dira Antiguoko taldearekin lehiatzera. Lehen mailako infantilek Debako Amakak Bat taldea izango dute aurkari eta nesketan, kadeteek berriz, Añorgako taldea, bere mailan oso talde esanguratsua dena.

Etxetik kanpo, baina hala ere, gertu jokatu dutenak bigarren mailako kadeteak izango dira. Julian Ugalderekin mutilek Estalako zelaian Antzuolaren aurka derbia izango dute.

Gezi Bat arkulari taldeak lokal berria zabalduko du gaur

I.A.

Gezi Bat arkulari taldeak egoitza berria izango du hemendik aurrera. Orain artean taldekideak euren kasa moldatu dira entrenamenduak egiteko, eta batzuek kanpoan ere jardun behar izan dute. Egoitza berria neguan erabiliko dute batez ere.

Mariaren Lagundiko eraikin berrian egongo dira arku tiroketan jarduten duten bergararrak. Lokal berriaren inaugurazioa gaur, barikua, arratsaldeko zazpietan izango da.

Bertan, entrenamenduak egiteaz gain, ikastaroak emateko asmoa ere badutela esan digu

Fernando Markina taldekideak. Era berean, arku tiroketarako erabiltzen duten materiala modu egokian gertatuko dute lokalean.

Guztira zazpi arkulari daude taldean: Fernando Karasatorre, Luis Mari Astigarraga, Jose Luis Arietaleanizbeaskoa *Uritxa*, Fernando Markina, Patxi Sola eta Pedro Ramos bergararrak eta Miguel Puente arrasatearra.

ERAKUSTALDIA

Oraindik Gezi Bat taldekoek ez dute erabaki zein lehiaketatan hartuko duten parte, baina litekeena da Labegaraietako jailetan jendaurreko arku tiroketa erakustaldia egitea.



Arkulariek erakustaldietan eta lehiaketetan hartu ohi dute parte.

Gazte mailako eskubaloi taldeak Urola hartuko du domeka eguerdian

ERREDAKZIOA

Bergara eta Urola gazte mailako eskubaloi taldeak aurrez aurre izango dira domekan. Bergara sailkapeneko bigarren tokian dago, Urolaren atzetik. Bestalde, infantil eta kadete mailetakoko taldeak ere etxean jokatuko dute aste bukaeran.

Bergara KEko gazte mutilen eskubaloi taldeak Urola hartuko du domekan Labegarrietako kiroldegian, 12:30ean. Josetxo Muniategiren taldeari bi partidu besterik ez zaio geratzen liga bukatzeko, domekakoa eta datorren asteakoa, Urnietan. Momentuan Gipuzkoako Ligako sailkapenean hirugarren tokian dira bergararrak, Ereintza liderra eta Urolaren atzetik, hain zuzen ere. Domekan Urolari irabazita ere, ezin izango dute bigarren postua eskuratu, zumarragarrek bost puntuko aldea ateratzen dietelako bergararrei. Joaneko partiduan, Zumarragan, lau goleko aldearekin nagusitu zen Urola.

Josetxo Muniategik zera adierazi digu: "Ea partidu ona egiten dugun domekan eta puntuak etxean geratzen diren, Urolarekin aldea murrizteko". Liga bukatu



Bergara KEko gazte taldea hirugarren tokian dago, Ereintza eta Urolaren atzetik.

ondoren, Kopa Txapelketa jokatuko dute bergararrek. Muniategi pozik dago taldeak ligan egin duen lanarekin, eta Kopan sasoi puntuari eutsi nahi dio.

BESTE HIRU PARTIDU ASTEBURUAN

Gazte mailako partiduaren aurretik beste bi partidu jokatuko dira domekan kiroldegian: batetik, infantil mailako nesken taldeak Aloña Mendiren aurka neurtuko ditu indarrak, 09:50ean, eta bes-

tetik, kadete mailako neskek Legazpiren aurka jokatuko dute, 11:00etan.

Zapatuan, berriz, beste partidu bat izango da Labegarrietan: kadete mailan, Bergara eta Leitxaran mutilen taldeak izango dira aurrez aurre, 16:15ean. Xabier Lijo eta Josu Labakaren taldeak nabarmen egin du hobera, eta, bi jardunaldiren faltan, seigarren postua eskuratzeko aukera du.

ESKIA

Pol-Pol taldeak eski irteera antolatu du Formigalera, martxoaren 12rako

Pol-Pol Mendizale Taldeak martxoaren 12an Formigalera eskia-tzera joateko irteera antolatu du. Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

Bestalde, azken urteotan ohikoa denez, Pol-Polek Aste Santuan Alpeetara eski irteera egingo du. Hain zuzen ere, apirilaren 9tik 17ra bitartean izango da irteera hori. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era.

PILOTA

Udaberri Txapelketako partiduak izango dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Udaberri Txapelketako pilota partiduak jokatuko dira gaur, egu bakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Hain zuzen ere, benjamin, alebin eta infantil mailetakoko bost partidu jokatuko dira gaurko jardunaldian.

Bergara KEko pilota sailak antolatutako Udaberri Txapelketan herriko gaztetxoak ari dira. 7-16 urte bitarteko 70 pilotari inguruk dihardute lehian. Finalak Pazko jaien inguruan jokatuko dira, maiatzean.

LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

ZAPATUAN, BARRUAN

11:30: K. Piperrak-T. Añiketan... Agirrebeña
12:30: De Resaka-P.D.S. T. Añiketan
17:30: Artusamak-Egurre Torrekua
18:30: Torrekua-Cosa Nostra ... T. Musakola
19:30: T.M.T-T. Musakola : Cosa Nostra

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Canalejas-Agirrebeña ... K. Piperrak

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Vervenir-Errotagain. Cosa Nostra
17:00: S.D.T.N.T.-Cosa Nostra ... Kalaveras
18:00: Kalaveras-Ganbara. A ze flaxa
19:00: A ze flaxa-Bedarreta. Torrekua
20:00: Teatekh-Torrekua. Bedarreta

EROSKI BIDAIK

HELBIDE BERRIA:

DOMINGO IRALA 5

www.viajeseroski.com

Viajes Eroski

BERTSOAK/ Enaitz Alustiza da eskolako irakaslea: 17 lagun helduen taldean eta zazpi gaztetxo ari dira bigarren ikasturte honetan

Jarduneko 'Potoplost' bertso eskolan 24 lagun dabilta aurtengo ikasturtean

EDU MENDIBIL

Jarduneko *Potoplost* bertso eskolako bigarren ikasturtea beteko du aurten. Enaitz Alustiza irakaslearen aginduetara 24 lagun dabilta, 17 helduen taldean eta beste zazpi gaztetxoen taldean. Herriko gazteen artean bada bertsoari zarako zaletasuna.

Helduen taldekoak eguazteneko elkartzen dira Arrizuriagan, 20:00etatik 22:00etara. Aurten 24 lagunek dihardute eta Enaitz Alustiza da irakaslea. Alustizak zera esan digu: "Benetan harrituta nago izan duten bilakaerarekin. Lehenbiziko urtean bat-bateko bertsoetan jadanik sekularo erraztasuna azaldu zuten, eta gero eta trebetasun handiagoa daukate. Oso pozik nago irakaslearen jarrerarekin eta taldean dagoen giroarekin. Hain zuzen ere, talde sena azpimarratuko nuke, bertsoaren inguruko ekitaldietara joateko askotan elkartzen gara-eta". Besteak beste, Gipuzkoako Bertso Txapelketako saioetara, Bertso Egunera eta bertso-afarietara egin izan dituzte irteerak.

JENDAURREAN BI SAIO

Esan bezala, eguazteneko bi orduz jarduten dute. Telebistatik egindako grabazioetatik doinu berriak ikasi eta jarraian praktikan jartzen dituzte askotan. Asteroko saioak osatzeko, bat-bateko ariketak ere egiten dituzte. Helduen taldeko kideek dagoeneko bi saio egin dituzte jendaurrean, bata Pol-Polen, iaz, udan, eta bestea UNEDeko aretoan, Udazken Kulturalako programazioaren barruan: "Jen-



Argazkian, Gabonetan kantatzera atera zen *Potoplost* Bertso Eskolako helduen taldea.

Helduen taldekoak eguazteneko elkartzen dira Arrizuriagan, bi orduz

daurrean kantatzea bultzada handia izan da guztientzat, eta oso ondo atera dira bi saio horiek".

Taldean diren 18 urtez azpiko kideek Gipuzkoako Bertso Paper

Enaitz Alustiza da eskolako irakaslea, eta taldean dagoen giroa azpimarratu du

Lehiaketan hartuko dute parte, eta, horrez gain, Alustizak taldeko pare bat lagun Bat-Bateko Txapelketan parte hartzerantz animatu nahi ditu.

Gaztetxoen taldean 9-10 urte bitarteko zazpi gaztetxo dabilta aurtengo ikasturtean

GAZTETXOAK BERTSOEKIN JOLASEAN

Haurren taldean, berriz, 9-10 urte bitarteko zazpi gaztetxo daude: Unai Agirrezabal, Maite Arantzabal, Daniel Cusi, Elene Etxa-

niz, Maddi Txintxurreta, Aitor Lenisoro eta Olaia Cusi. Gaztetxoekin eguazteneko elkartzen dira Enaitz, 18:00etatik 19:15era. Bertsoarekin zerikusia duten jolasak egiten dituzte, oinen eta errimazentzua ulerrazteko, eta, horrez gain, bat-batekotasuna lantzen hasten dira poliki-poliki, lagunaren aurrean kantatzeari beldurrik ez izateko: "Adin horietan berehala ikasten dute gaztetxoak harrigarria da", dio Alustizak.

Bi urte bete dituen *Potoplost* eskola bizi-bizirik dago. Herriko bertsoetan egin nahi duenak badauka nora jo.

Saltoki txikiaren gaineko pintura lehiaketa Bedelkarren eskutik

E.M.

Bedelkar Bergarako dendarien elkarteak pintura lehiaketa deitu du. Margolariak saltoki txikia islatu beharko dute euren lanetan. Nagusien mailan, irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du.

Bedelkar herriko dendarien elkarteak saltoki txikiaren gaineko pintura lehiaketa deitu berri du. Bergaran nagusi diren dendak txikiak suspertzea da Bedelkarren helburuetako bat, eta, hori dela eta, pintura lehiaketa antolatzea pentsatu dute herriko dendariak.



Saltoki txikia islatu beharko da.

LANAK, APIRILERAKO

Esan bezala, partaideek saltoki txikiaren inguruko lanak aurkeztu beharko dituzte apirilaren 1etik 30era bitartean, kultura etxean. Adinaren arabera bi talde bereiztuko dituzte: 18 urtetik gorakoena eta gazteena, 18 urtetik azpikoena. Lehen taldearen kasuan, irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du eta gazte taldeko onenak, berriz, 300 euro. Olio, akuarela, akrilikoa edo teknika mistoa espresio teknikak erabili ahal izango dira.

Lehiaketara aurkeztutako lan onenekin kultura etxean erakusketa egingo dute maiatzaren 3tik 9ra.

LABUR

Oihulari Klown taldeak 'Divinas' antzezlanaren estreinatuko du gaur Zabalotegin

Oihulari Klown taldeak *Divinas* antzezlanaren estreinatuko du gaur egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Oihularik Ama Birjina, Maria Magdalena eta Jesukristo terapian jarriko ditu. Laguntza ematen duenak dira: Aitor Lopez, Virginia Imaz eta Txefo Rodriguez aktoreak ditugu Maria Magdalena, Ama Birjina eta Jesukristoren paperetan, hurrenez hurren. Virginia Imaz da zuzendaria eta gidoiaren egilea.

Gaurko emanaldirako sarrerak 6 eurotan jarriko dira salgai.

'Bergara, historia topagunia' zikloaren barne, Achon Insaustiren hitzaldia martitzenean

Udal Artxiboak antolatutako *Bergara, historia topagunia* hitzaldia sortarekin jarraituz, Jose Angel Achon Insausti Deustuko Unibertsitateko Historia Doktoreak hitzaldia egingo du martitzenean, martxoak 2, Miguel Altunako areto nagusian, 19:30ean.

Jose Angel Achon Insaustik egingo duen hitzaldiaren izenburua honako hau da: *La construcción del camino real de coches en el siglo XVIII: un momento crucial de la historia guipuzcoana.*



2004ko otsailaren 27xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 10. alia

IEPA LAGÜNOK! URREZKO ARAUAK

Bai ondo pasau nebala aratustietan! Zuek, zer moduz pasau ziñuen? Ikusi ninduzuen? Nik zuetako asko ikusi ziñuzten. Oso mozerro polittak ikusi nittuan. Bestela, ikusi-ikusi ondo-ko argazki honetako pirata eta indixuak.



Ikusi ninduzuen aratustietan?
Zela mozerrotu ziñan?



~~Ikusi zostazuen aratustietan?~~
~~Zerena mozerrotu ziñan?~~



TXISTIA

- Zer emoten diharduzu katuari?
- Alpistia.
- Baiña ez notsun ba esan alpistia kanarixuarendako zala?
- Bai, baiña... kanarixua katuaren sabelian dago.

JA, JA, JA

INKESTIA

Zela mozerrotu ziñan?



Estefania Boldon 10 urte

Zapatuan hippo mozerrotu nintzan lagunekin. Beste lagun batzuk punki jantzi ziren eta beste batzuk mexikar jantzi ziren. Martitzenian gelakidiekin pirata mozerrotu nintzan.



Eneko Cruz 10 urte

Martitzenian pirata mozerrotu nintzan gelakidiekin. Arratsaldian kalera juan giñen. Aste bukaeran ez nintzan mozerrotu. Ah, torradak jan nittuen eta oso onak zeren.

ABESTIXA

BANPIRUA

Banpiro bat naiz
Txoratuta nago.
Goizetan ikasten dut
Hamabiak jotzen dituztenean
Txotxolotuta geratzen naiz.
Baraba uh uh ah ah uh uh uh ah
Baraba uh uh ah ah uh uh uh ah
Nere aita Drakula da baraba
Nere ama bere alaba
Anai bat ere badaukat
Baina zurgatzen onena naiz.
Baraba uh uh ah ah uh uh uh ah
Baraba uh uh ah ah uh uh uh ah.



Uxue Lazkano 8 urte

Domekan egipzia mozerrotu nintzan gurasuekin. Eurak ez ziren jantzi baiña bost urteko nere ahiztia bai; bera troglodita jantzin zan. Martitzenian arraunlari mozerrotu nintzan gelakidiekin.

ZAHARRAK BERRI



Argazkian, martitzeneko bazkarian bildutako emakume koadrila bat.

Mozorrotutako jende gutxi baina giro ona izan zen martitzenean erretiratuen egoitzan.

Aratuste gazi-gofoak erretiratuen elkartean aurten

EDU MENDIBIL

Aratuste gazi-gofoak izan dituzte aurten San Joxepe elkarteko lagunek. Aratuste-martitzeneko giroa berri txar batek zapuztu zuen: bazkalostean, Tomasa Zabaletaren heriotzaren berri jaso

zuten bazkarian bildutakoek. Ondorioz, erretiratuen elkarteko zuzendaritzak bazkalosteko dantzaldia 19:00etan amaitzea erabaki zuen, Zabaletaren aldeko duelu gisa. Iñaki Quintanillak alaitutako dantzaldia inoiz baino tristeagoa izan da aurten. Guztira, 90 lagun inguru izan ziren mar-

titzeneko bazkarian. Mozorrotutako jende gutxi, baina giro ona zoritxarreko albiste heldu zen arte.

LOGROÑORA IRTEERA ATZERATU

Bestalde, San Joxepe elkarteak otsailaren 27rako Logroñora joateko antolatuta zuen irteera mar-

txoaren 5ean egingo da, azkenik. Eguraldi txarragatik astebete atzeratzea erabaki dute San Joxepekoek. Irteera, esan bezala, egubakoitzean, martxoaren 5ean, egingo dute, 08:30ean. Logroño-katedrala eta alde zaharra ikusiko dituzte eta ondoren, Biasteriko jatetxe baten bazkalduko

dute. Arratsaldean, berriz, Harribisitatu dute Bergarako erretiratuek. Iluntzean itzuliko dira herrira.

Izenematea (25 euro) erretiratuen egoitzan egin daitezke. Argibideak bertan edo 943 763 09 telefono zenbakian jaso ditezke.

Tomasa Zabaleta hil zen martitzenean

E.M.

Tomasa Zabaleta San Joxepe erretiratuen elkarteko presidentea hil zen martitzenean, Donostian, 73 urte zituela. Langile nekazina, azken unera arte lanean jardun du Tomasak: otsailaren 3an San Joxepeko zuzendaritzak egin zuen batzarrean hartu zuen parte. Hala ere, bere osasun egoerak txarrera egin zuen egunotan eta gaixotasun sendaezin baten ondorioz hil zen, erresidentzian. Bere aldeko hileta elizkizunak eguaztenean izan ziren, San Pedron.

Tomasa Zabaleta 1930eko urriaren 20an jaio zen. Fagorren egin zuen lan urtetan, eta erretiratu zenean San Joxepeko presidente izendatu zuten. Bere eskutik erretiratuen elkarteak hazkunde nabaria izan zuen, bai bazkide kopuruari dagokionez, bai eta antolatutako ekitaldiei erreparatuz ere. Erretiratuek gizartean zeregin aktiboa izateko lan bikaina egin zuen, hura baitzen bere kezka nagusietako bat. Gizartekintzako eta Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteko presidenteordea ere bazen.



Tomasa Zabaletak lan bikaina egin du azken urteotan San Joxepeko zuzendaritzan.

LABUR

Mendi irteera datorren eguenean, martxoak 4

Urteko mendi irteeren programazioaren barruan, San Joxepe erretiratuen elkarteak irteera iragarri datorren eguenerako, martxoak 4. Ibilbidea honako hau izango da: Zumarraga-Santa Barbara-Trekutz-Gorla. Gorla-Zurin bazkalduko dute. Irteera 09:15ean izango da, autobus geltokitik. Interesatuak San Joxepeko harrera gelan eman beharko dute izena. Argibideak: 943 76 30 09.

LAN ESKAINTZA

Banatzailleak

- Banatzaileak behar dira astelehen goizetan 'Asteleheneko Goienkaria' banatzeko.
- Norberak motoa edukitzea kontuan hartuko da.
- Derrigorrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea.
- Deitu 943 71 23 91 telefonora.

ASTELEHENKO
Goienkaria

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Ze kaletan dago irudiko eraikina?

BERGARAROSPETSUAK

Simon Arrieta (eta 2)

KOLDO PEREIRA


Parisera joan zen, baina berehala itzuli zen Bergarara. 1948ko maiatzean lau koadro aurkeztu zituen Gipuzkoako Artisten V. Bienalean, Zuloaga, Apellaniz, Basiano eta beste zenbait artistarekin batera.

1950ean Madrilerara joan zen bizi izatera, eta urte eta erdian 150 koadro egin zituen, gehienak erretratuak. Arte Ederretako Zirkuluko Minerva aretoak atek zabandu zizkion, eta han jarritako 30 koadroek miresmen handia sortu zuten.

1953an jaioterrira itzuli zen. Hortaz, aukera izan zuen bere lana eta "Bergarako eskola" sendotzeko. Donostian eta Bilbon erakusketak egiten jarraitu zuen, arrakasta handiz, gainera. 1967an Arrietari buruzko mahai-ingurua antolatu zuten Bilbon, eta Euskal Herri osoko artistek hartu zuten parte. Hura izan zen Arrietaren azken agerraldia.

1969ko otsailaren 15ean hil zen. Herriak miresmen handia erakutsi zion. Simonen meriturik handiena, pinturarako iaotasunaz gain, zaletasun hori besteengan ere piztea izan zen, herriko gazte askori ireki baitzizkien bere estudioko atek.

Pinturarako zaletasuna piztu zuen, eta herriko gazte askori estudioko atek ireki zizkien



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- Agenda XXI-garatzeko zein talde eratu du Debagoieneko Mankomunitateak?
A/ Debagoiena Topaketak .
B/ Elkarlanean XXI.
C/ Udaltalde 21 Debagoiena.
- Nor da Jarduneko *Potoplost* bertso eskolako irakaslea?
A/ Enaitz Alustiza.
B/ Ainhoa Agirreazaldegi.
C/ Maialen Lujanbio.
- Zein urtetan hil zen Simon Arrieta margolari bergararra?
A/ 1972an.
B/ 1973an.
C/ 1969an.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ARANTZAZU GARITANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Arantzazu!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1527an / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE1/.....2/.....3/.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ram esnea

Litroko brika

0,62 €

103 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

SANTOS




Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARaren bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
 Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
 Argazkia oso-osorik jasotzeko ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
 Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Ane Laskurain
 Otsailaren 21ean, 6 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, bereziki Mikel.



BERGARA
Jose Felix De Benito
 Otsailaren 29an, 44 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Leire Manso
 Otsailaren 21ean, 6 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Julen Osinaga
 Otsailaren 21ean, 4 urte.
 Urte askotarako!
 Ikerrez partez.



BERGARA
Martxel Belategi
 Otsailaren 27an, 3 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Miren Manuel
 Martxoaren 3an, 6 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, bereziki Markel.



ELGETA
Mikel Canelo
 Matxoaren 1ean, 6 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Erroxe Etxebarria
 Otsailaren 28an, 7 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Aritz Rezusta
 Otsailaren 28an, 13 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, bereziki Beñat.



BERGARA
Nere Zurro
 Otsailaren 26an, 8 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Aitor Lopez de Lakalle Rementería
 Otsailaren 27an, 1 urte.
 Urte askotarako!



BERGARA
Asier Roman
 Otsailaren 29an, 4 urte.
 Urte askotarako!
 Jokin, Alazne eta Aitor.



BERGARA
Mikel Edroso
 Otsailaren 28an, 7 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak eta Maria.



BERGARA
Manex Goiti
 Otsailaren 27an, 9 urte.
 Urte askotarako!
 Ismeneren partez.



BERGARA
Eider Sasiain Salgado
 Martxoaren 27an, 3 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak, Jorge eta M^o Jose.



BERGARA
Ayala Sasieta
 Martxoaren 3an, 7 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Maddi Elorza
 Otsailaren 29an, 8 urte.
 Urte askotarako!
 Etxeko guztien partez.



BERGARA
Borja Elkorobarezibar
 Martxoaren 1an, 11 urte.
 Urte askotarako!
 Etxekoak.



BERGARA
Garbiñe Oruesagasti
 Martxoaren 2an, 32 urte.
 Urte askotarako!
 Kuadrilakua eta...

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, asteleheneretan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Balxongua

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
 BERGARA
 943 76 05 09



Urteaga 9
 BERGARA
 Tf. 943 76 18 45

ILUNTZEAN

Idoia Zenarruzabeitia solaskide

Eguenean, martxoaren 4an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



*Jardun Euskara Elkarteak EHEk egin
duen manifestazio deialdiarekin bat egin
eta bertan parte-hartzera animatzen zaitu*



>>> MANIFESTAZIOAK
Otsailak 28

Bergaran	Gernikan
18:00etan	18:00etan
Martin Agirre plazatik	Udaletxetik

**Gure eskubidea delako,
EPAITEGIETAN EUSKARAZ!**

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

**ELA, LAB, EHNE, BAI EUSKAL HERRIARI, IKASLE ABERTZALEAK, PRESOEN LAGUNAK,
SEGI, TXAPA, ASTINDU, GAZTETXEA, JARDUN, AEK...**

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko otsailaren 27a / 191. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Autobus zerbitzu berezia jarri dute umeendako

AINZANE IRIZAR/JULEN IRIONDO

Martxoaren 1etik aurrera, Bergarara joateko autobus zerbitzu berezia egongo da. Diputazioarekin eta Pesarekin Antzuolako Udalak lortutako akordioaren emaitza da zerbitzu berezi hori. Umeek ez ezik, gainerako herritarrek ere erabili ahal izango dute.

Batez ere, eskolaz kanpoko jardueretara Bergarara joaten diren neska-mutikoengan pentsatuta jarri du Antzuolako Udalak autobus zerbitzu berezia.

Umeek ikasturte osorako bono-txartelak erosteko aukera izango dute; gaur, egubakoitza, izango da horretarako azkeneko eguna; udaletxean egongo dira salgai, 18:00etatik 20:00etara.

Gainerako erabiltzaileendako ere salduko dituzte hamar bidaiarako bono-txartelak. Horiek erosi gabe ere erabili ahal izango da zerbitzua, autobusean bertan ordainduta. Bono-txartelarekin, bidaiak bakoitzak 90 zentimo balio du; bestela, euro bat.

Autobus zerbitzu hau asteleheneetik egubakoitzera egongo da, ekainaren 18ra arte.



Asteleheneetik egubakoitzera egongo da zerbitzu berezia, eskola egunetan.

Antzuolatik Bergararako autobusak honako orduetan irten-go dira: 16:45ean, 17:30ean, 18:15ean; 19:00etan; 19:40an; 20:20an eta 21:20an. Bergaratik,

berri, honako orduetan irten-go dira autobusak, Ibargarairako geltokitik: 16:30ean; 17:05ean; 17:50ean; 18:35ean; 19:20an; 20:00etan eta 21:00etan.

UDALAREN PROIEKTUAK

Gertu Gaek kritikatu egin ditu proiektuak

AINZANE IRIZAR

Gertu Gae plataformako kideek Udalak aurkeztu berri dituen proiektuen gainean hainbat azalpen eman dituzte. Udalaren proiektu horien egoeraren berri emateaz gain, horietako hainbat proiektu eta Udalaren jarrera kritikatu dituzte.

Horrelaxe hasten da Gertu Gae plataformak helarazi digun prentsa oharra: "Antzuolako Udaletik, balizko zenbait proiekturi buruz batzuk egiten ari diren propaganda planifikatua...". Bestalde, honako hau diote: "Udalak, bere helburuak finkatzeko, kea saltzeari utzi eta orain arte baino askoz zintzoago egin beharko luke lan".

PROIEKTUEN GAINEKO KRITIKA ZEHATZAK

Proiektuen gainean, kritika eta azalpen zehatzagoak ere eman dituzte Gertu Gae plataformako kideek; honako hauek, hain zuzen ere: batetik, udalbatzarrak frontoi berria egiteko inolako aurreproiektu edo aurrekonturik ez duela onartu azaldu dute, eta

2004ko aurrekontu proposanean ez dela lur erosketen aurrez ikusten. Bestalde, herriko gune historikoa berregintzeko planaren gainean, herriko azaldu dute: plan hori behineko izaeraz onartu ez baina ez dagoela inolako aurrekontu diorik epeei buruz, ezta aurrekonturik ere.

Udalaren jarrera ere kritikatu dute: gaztetxea itxita dago eta Udalak errenta ordaintzen jarraitzen duela; euskal politikoei jasaten duten salbuerak aurka aurkeztutako mozioa baztertu dutela; proiektuak ez dituztela batzordeak aztertzen eta eztabaidatzen; EAJ eta EAKoen oniritziaren kin dabilela Gertu Gaeko zinegotziri ezarritako "aparteko politikoa gauzatzen"; eta udalbatzarrak 08:00etan egiteko duela laguntzen demokrazia parte-hartzea bermatzen.

Azkenik, Gonzalez de Txerri ere egin nahi izan du hainbat eskaera: herritarrei erak behar bezala jartzeko eta herriko bidea berehala irekitzeko "gerorako promesa ustelaketeari utzita".



Imanol Obiri herrian egon da

Orain dela hamabi bat urte joan zen Imanol Obiri antzuolarra Alemaniara bizi izatera. Noizean behin etortzen da bere jaioterrira. Oraintxe, esaterako, Antzuolan pasatu ditu aste batzuk; gustura, gainera. Berak esaten duenez, egunen baten hona etorriko nahiko luke bizi izatera.

Aurreko asteko egubakoitzean, bere ikaskide izandakoekin afaria egin zuen, Leku-Berrin. Ondo baino hobeto ibili ziren. Astelehenean, baina, Alemaniara itzuli behar izan zuen./A.I.

LABUR

Olalde elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat ospakizun egingo dituzte bihar

Bihar, zapatua, ospatuko dute Olalde elkartearen 25. urteurren Otsailaren 24an, hain zuzen ere, bete ziren 25 urte elkartearen inauguratu zutela. Hainbat ekitaldi antolatuko dituzte biharkeko egun osoan salda, pintxoak eta ardoa banatuko dituzte bazkideek bertan artean. Ondoren, trikitilariekin kalejira egingo dute. Egundik aurrera, pilota partiduak jokatu dira frontoian; jarraian, bertan Olaldeko bazkideek eta trikitilariak bazkaria egingo dute.

Ehunkien bilketan arazoak sortu direla eta, ohar bat helarazi digu Mankomunitateak

Antzuolan ehunkiak batzeko edukiontzi zuriarekin hainbat arazo sortu direla eta, ohar bat helarazi digu Debagoieneko Mankomunitateak. Ehunkiak poltsa itxietan sartuta eramateko eta arazoak solte ez lagatzeko eskatu nahi die herritarrei; bestalde, poltsatik txikiak erabili behar direla ere gogorarazi nahi die, edukiontziaren sarreran arazorik ez sortzeko.

ELKARTASUNA

Mizpirualde egoitzara joateko boluntarioak behar dituzte

AINZANE IRIZAR

Bergarako Mizpirualde egoitzan dauden antzuolarrak bisitatzea joaten dira hainbat boluntario astero. Orain dela pare bat urte jarri zuten martxan ekimen hau Antzuolako erretiratuek. Orain, beste boluntario batzuk behar dituzte, bisita horietarako.

Astelehenero joaten dira Antzuolako boluntarioak Bergarako Mizpirualde egoitzara. Guztira, 35 bat lagunek dihardute zeregin horretan. Zazpi talde dituzte eginda, eta txandaka joaten dira; astelehenero, lauzpabost laguneko talde bat joaten da. Astelehen arratsaldeetan, 17:00etatik 18:30era egoten dira Mizpirualden. Lehenik, han dauden antzuolarrak bisitatzeko dituzte; gero, berriz, bisita gutxi jasotzen dituzten bizilagunekin egoten dira.

Denborarekin, baina, arrazoi bat edo beste tarteko, boluntario ibili diren horietako batzuek laga egin diote Mizpirualdera joateari. Gauzak horrela, eta Antzuolako erretiratuek bisita horiek



Boluntario talde bat Mizpirualden dagoen Facunda Laskurain antzuolarrarekin.

jarraitu nahi dutenez, herritarrei boluntario moduan hasteko dei egiten diete. Horretarako interesa dutenek, Juanita Zabalo-rengana edo Karmele San Sebas-

tianengana jo dezakete izena emateko. Argi laga nahi dute, hala ere, deialdia ez dela erretiratuendako bakarrik, edozein herritarrendako baizik.

LABUR

Udalekuetarako izena emateko epea zabalik dago, ume eta begiraleendako

Urtero moduan, uztaierako antolatuko ditu herriko udaleku irekiak Antzuolako Udalak. Oraindik hilabete batzuk geratzen diren arren, denboraz ibiltzeko eta udalekuok behar bezala antolatze-ko, dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Umeek eta begirale izan nahi dutenek, guztiek dute aukera izena emateko. Martxoaren 18ra arte, eguena, izango dute horretarako aukera. Interesatuak udaletxera jo beharko dute izena ematera, bulegoko ordutegian.

Aurreko asteburuan jai hartu eta gero, futbol talde guztiek dituzte partidua

Aratustek zirela eta, futbol taldeek ez zuten partidurik izan aurreko asteburuan. Oraingo asteburuan, gazteek eta kadeteek etxean jokatu dute. Gazteek Behobia izango dute aurrez aurre, zapatuan. Kopa jokatzeko dihardute, eta hirugarren postuan daude, 6 punturekin; Behobia, berriz, bigarren postuan dago. Hala ere, kontuan hartu behar da Antzuolak partidu bat gutxiago jokatu duela. Domeka eguerdian, berriz, kadeteek Bergararen aurka jokatu dute; bi taldeak ere nahiko larri dabilta aurtengo denboraldian.

Eskola arteko ibilaldi neurtuan parte hartuko dute umeek, Aretxabaletan

Martxoaren 14an, domeka, eskola arteko ibilaldi neurtua jokatu-ko da Aretxabaleta inguruan, Zaraia Mendizale Taldeak antolatuta. Parte hartu nahi duten neska-mutikoei eskolan eman dezakete izena.

Aretxabaletan izango da ibilaldi hori, esan bezala. Gipuzkoa plazatik irtengo dira parte-hartzaileak, eta honako ibilbidea egin beharko dute: Aretxabaletatik Eskoriatzako Apotzaga auzora joango dira; handik, San Adrianetik eta Asensiomenditik pasatu, eta Untzillara joango dira; Untzillatik Izurietara eta azkenik, Aretxabaletara itzuliko dira.

HERRITARRENHITZA / Patxi Olabarria · Langilea

Inpotentzia

Arantxa Amezaga, Rosa Amezaga, Pilar Arzuaga, Alfonso Isasi, Matilde Arribillaga, Antonia Hernandez, Jose Mari Maruri, Mari Karmen Salbide, Ruben Garate, Asier Heriz, Iñaki Saez, Argi Iturralde, Iñaki Balerdi, Sara Fernandez...

Ezagutzen dituzu? Ziurrenik ez, ez baitira azaldu informatiboetako lehen berrietan. Guztiak senide edo lagun preso bisitatzeko bidaian hil dira.

Zerrenda beltz honetako Antonia Hernandezen kasua oso gertutik bizi izan nuen. Bere biloba, Angel Figeroa, nirekin

zegoen Alkanan. 1997ko martxoaren 13 hartan biok genuen etxekoekin bisita, baina Angelen etxekoak ez ziren iritsi. Bisitatik bueltan, kartzeleroak inoiz ahaztuko ez dudan irrifar maitzur batekin zera esan zidan: "¿Sabe que la familia de Figeroa ha tenido un accidente? Están todos graves. Ahora, recoja sus cosas que le vamos a cambiar de módulo". Ezin nuen sinistu.



"Mozioa bozkatu eta egun gutxira, Angel Kordobara eraman dute"

Angelen guraso eta aitona-amonon kotoxa trailer batek irentsi zuen Aranda de Duero; ez genekien bizirik edo hilda zeuden. Eta justu, Angelen bizitzako momenturik latzenezan lagun babesa ukatu zioten, bakarrik utzi zuten! Horrelako inpotentziarik ez dut inoiz sentitu. Orduan konturatu nintzen benetan zer den dispersioa.

Behingoz zerrenda beltz ho-

nekin amaitzeko, euskal preso eskubideen aldeko mozioa aurkeztu dugu Udalean. Gertu Gaeren aldeko botoak ez dituzte kontatu (427 antzuolar ez gara existitzen), PNV-EAkoak abstentitu egin dira eta PSOEkoak aurka bozkatu du. Dispersioa martxan jarri zuen partiduaren boto bakarrarekin udalbatzak ez du mozioa onartu. Hau da egungo errealitate gordina.

Bozketa izan eta egun gutxira Angel Palentziatik Kordobara eraman dute eta gaixotasun larriarekin dagoen Manu Azkarate anbulantzia baten Martutetik Alcala. Inpotentzia.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 28
16:00: Antzuola-Behobia (Gazteak)
Otsailak 29
12:00: Antzuola-Bergara (Kadeteak)

PILOTA

Otsailak 28 (Udaberri Saria)
12:00: Olalde-Altzatarra II (Palet. nag.)

EMAITZAK

PILOTA

Udaberri Saria
Olalde-Mundarro (Kadeteak)... 22-8
Elgoibar-Olalde (Nag. eskuz)... 22-9

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

AITZ-GARBI
taberna
jatetxea
Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Juan Cruz
**Jaunartze
argazkiak**
Betiko izango den
orogarriak merezi du
lan txukuna.
Zatoz Juan Cruzera.
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko otsailaren 27a / 175. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Elurte egunetan informazioa emateko zerbitzua joan den astean abiarazi zuten

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak beste zerbitzu bat jarri du abian, hain zuzen, elurra diharduen egunetan eguraldiaren eta errepideen gaineko informazioa emateko. Joan zen asteko elur-jasen ondorioz, dei asko jaso zituzten udaletxean, eta Internet bidez egindako kontsultak ere izan ziren.

Elurteek Elgetako errepideetan sor ditzaketan arazoak direla-eta, herriko enpresetara etortzen diren langileei eta herritik kanpora joaten direnei, informazioa emateko momenturoko zerbitzua eskaintzeko erabakia hartu zuen Elgetako Udalak.

Joan zen astean abiarazi zuten zerbitzu hori. Izan ere, egunean eta barikuan izandako elur-jasen ondorioz, jende askok deitu zuen udaletxera errepideen egoeraren berri jakiteko.

Informazio zerbitzua 06:00etatik 22:00etara da. Beraz, ohiko ordutegian ez ezik orduz kanpo telefono deiei ere erantzun zieten. Udaleko webgunearen bidez ere eman zuten informazioa. Aurreantzean ere hala egingo dute elurteak iragarrita daudenean.



IBAN ARANTZABAL

Elgetan mendiak ez ezik kaleak ere zuritu zituen elurra, eta makinak lan handia izan zuen elurra kentzen.

WEBGUNEAN ETA TELEFONOZ

Eguenean, eguerdian hasi zuen elurra, eta 15:30etik 19:30era, webgunean, momenturo eman zuten errepideen egoeraren eta egural-

diaren berri. Baita barikuan goizean eta arratsaldeko 17:00etan ere. Guztira, 340 bisita inguru jaso zituen webguneak eta 1330 izan ziren ikusitako orriak.

Telefonoz ere jaso ahal izan zuten informazioa gidariak. Eguenean bertan, bulego orduetan, 30 deitik gora jaso zituzten udaletxean. 18:00etatik 22:00etara,

Udaletxean ia 700 deitu jaso zituzten, ostia eta ostiralean, berriz, egoeraren berri jakiteko

berriz, 19 dei. Gehienek zuten bideak nola zeuden, eta elurra kentzeko modua, industrialdeketatik noiz pasatuko galdetzeko.

Bariku goizean, lehen orduan elurrik egin ez bazuten, 06:00etatik 08:00etara bitartean 14 lagunek deitu zuten udaletxera, eguraldiarekin eta errepideen egoerarekin kezkatuta. Ostia, ostiralean, berriz, 16:30etik 18:00etara arte ere hainbat dei izan ziren, jakinarazi digute.

Elurra kentzeko makinak erabiltzean errepideak garbitzeko ostean, barikuan baserriko errepideetatik elurra kentzen zuten nahikoa lan.

Ondoren, elurra eta elurteko gatza botatzeko zuten, eta horrek errepideen arazoak arindu zituen.



Ezkontzara mozorrotuta

Ezkontza batera joateko trajea janzten denean, batek baino gehiagok mozorrotuta doala dirudi. Baina argazkiko koadrila hau Inauteri-zapatuan mozorroa jantzita joan zen lagun baten ezkontzara. Ez zuten, gainera, nolana hiko mozorroa aukeratu, drag queen jantzita azaldu baitziren ezkonberrien aurrera. Elizara gisa horretan sartu zenik ere izan zen. Ezkondu ostean, senarrak traje formal erantzi eta, bere lagunak bezala, mozorroa jantzi zuela jakin dugu./I.A.

LABUR

Aerobikeko eskolen hasiera martxoaren 8ra arte atzeratu du Udal Kirol Zerbitzua

Martxoaren 2an ziren hastekoak Udal Kirol Zerbitzua atzeratu du. Baina hasiera eguna martxoaren 8ra atzeratu dute. Nagusien taldeak astelehenean eta eguaztenean bertan, 19:00etatik 21:00etara, eta gazteek, berriz, astelehenean 19:00etatik 20:00etara eta egunetan 18:00etatik 19:00etara. Eskolak kiroldegiko gimnasioan izango dira. Izena eman nahian, Udal Kirol Zerbitzura edo Bola Toki tabernara jo behar da.

Zaldibarko hiru musika taldek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean

Gaztetxeak hasi dira jadanik martxoan ospatuko duten zaldibarko kontzertua. Jaiaren aurrerapen modura, bihar, zapatua, kontzertua izango da gaztetxean bertan. Zaldibarko hiru taldek jardungo dute: Santos Dolidos, Damu dot eta Disorders. Kontzertua 23:00ak aldean hasiko da. Bestalde, martxoaren 8an, gaztetxean izango dela aurreratu dute Gazte Asanbladaren kontzertua.

OZKARBI ELKARTEA

Kontuak egiteko ordenagailua aurrerapena Ozkarbikoendako

I.A.

Ozkarbi elkarteko bazkideak garai berrietara egokitzen hasi dira. Horretarako, besteak beste, ordenagailua ipini zuten Gabonetan elkartean, kontuak automatikoki egiteko. Hain zuzen ere, sistema berria jartzearen helburuetako bat lanak erraztea da.

Trailean zuzendaritza aldatu ostean, Ozkarbi elkartean zenbait berrikuntza egin dituzte. Nabarmena ordenagailua ipintzea izan da. Ordenagailua bera baino erabiltzen duen sistema da elkartera aldaketa ekarri duena. Izan ere, elkarte gastronomikotarako bereziki prestatutako programa bat erabiltzen du.

Bazkideek kontsumitzen dutena ordenagailuan apuntatzen dute, eta horrela, zuzenean kontrolatzen da informatika bidez biltegian zer falta den edo zer dagoen bukatzeaz. "Izan ere, lehen, astero egin behar izaten

genuen biltegian zer falta zen jakiteko kontaketa, eta horrek denbora luzea kentzen zigun. Horrez gainera, kontu guztiak banan-banan gainbegiratu behar ziren diru kontuetan arazorik ez egiteko", esan digu Luis Mari Arantzeta Ozkarbi elkarteko presidentek.

TXARTELA

Orain, ordea, prezio guztiak ordenagailuan daude, eta hark zuzenean kalkulatu beharrekoa. Horretarako, kontsumitu edo erabili diren produktuak markatu besterik ez da egin behar.


"Elkarteko bazkideek elkarri erakutsi diete ordenagailuaren funtzionamendua"

Bazkide bakoitzak txartel bat dauka, eta irakurgailu optiko baten bidez (supermerkatuetako ordain-kaxetan erabiltzen denaren antzerakoa) ezagutzen du ordenagailuak bazkidea. Dirurik ez badu zorretan laga ahal izango du, eta diru gehiago ipintzen badu, berriz, hurrengorako gertuko zaio.

Bazkideak oso gustura daude sistemarekin, eta batak besteari erakutsiz jakin dute nola dabilen makina berria. Bazkideek ez ezik erretiratuek ere erabiltzen dute ordenagailua. Orain dela gutxi, esaterako, 80 urtetik gorako emakume batek herriko alkateari esan zion nola erabili behar zuen makina.

BERRIKUNTZA GEHIAGO

Ordenagailuaz gain, berogailu sisteman ere egin dute aldaketarik. Solairu bakoitzean berogailua independenteki pizteko moduan ipini dute. Bestalde, izotza egiteko makina berria ere ipini dute Ozkarbin.



Elkarteko bazkideek eta bertara joaten diren erretiratuek dute ordainketa txartela.

KIROLA

Txukuntze lanak San Roke osteko parkean

I.A.

San Roke ostean, hilerriaren aldamenen dagoen berdegunean txukuntze lanak egiteko proposamena egin dute Hezkuntza eta Turismo batzordeko bileran. Gobernu batzordeko erabakiaren zain badaude ere, seguru aski laster hasiko dira lanak.

San Roke ostean bada parke txiki bat hilerriaren alboan. Azkenaldian egoera kaxkarrean dagoela eta, aldaketa nabarmenik ez egin arren, ingurua txukuntzeko asmoa dute.

Besteak beste, ibilgailuak gune horretara sar ez daitezen piboteak ipiniko dituzte. Izan ere, gurpil markak laga eta lurra hondatzen dute.

BELARRA

Belarra ere gero eta urriagoa da, eta horregatik lurra eramane dute bertara; hala, behin bota ostean, belarra ereitea da asmoa.

Bestalde, San Roke ostetik hilerriko sarrerara doan bide zatian harritxoak botako dituzte, putzuak sortzen baitira.

Azkenik, inguru horretan dauden eserlekuak margotu egingo dituztela esan digute.



San Roke ostean eserlekuak margotzea eta piboteak ipintzea da asmoa.

LABUR

Azagirre pilotaria Euskal Ligako finalean izango da

Ozkarbi pilota elkartean diharduen Iker Azagirre pilotari bergararrak Euskal Ligako finala jokatuko du eskuz banaka. 22 urtez azpikoetan mailan dihardu Azagirrek. Finala gaur, barikua, jokatuko da Laudioko pilotalekuan, 19:00etan.

Bestalde, Ozkarbi pilota elkarteak ekin dio martxoaren amaieran hasiko den lau terdiko txapelketa gertatzeari. Kadeteek eta 23 urtez azpikoek jokatuko dute torneo eta klub bakoitzetik ordezkari bakarra izango da maila bakoitzean. Izena emateko epea otsailaren amaiteko da.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ILE 
A ILE ADINDEGIA
Azaroaren 12an zabalik!
Plaza Andra Mari 2
Tel. 943 76 81 97
20690 Elgeta

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA
Goibekokale

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Infantilen futbol taldea, 1991n

Gaur egun ez dago infantil mailako futbol talderik Antzuola Kirol Elkartearen. Baina, elkartearen sortu zutenean, bazegoen talde bat. 1991-1992 denboraldiko argazkia da honakoa, eta lehendabiziko urtea zen orduko hura, taldearendako eta taldekideendako.

Argazkiko askok, denborarekin, laga egin zioten futboleari jokatzeari; beste batzuek, ordea, urtetan jarraitu zuten, eta badago gaur egun jarraitzen duenik ere.

Seguruena, zuetako askok ikusita izango duzue argazki hau; izan ere, Leku-Berri jatetxeko jantokian zintzilik daramatza urtetxo batzuk.

Hona hemen argazkian azaltzen diren taldeko kideak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Tomas Ormaetxea (entrenatzailea), Jose Manuel Rodriguez, Asier Mendia, Iñaki Artolazabal, Eñaut Urtzelai, Gorka Sanchez, Julian Azkargorta entrenatzailearen laguntzailea (atzera-go), Jon Aranguren, Alex Sanchez, Juan Pedro Jurado, Manu Castro eta Gurutz Madariaga (entrenatzailea).

Makurtuta, berriz, honako hauek azaltzen dira, ezkerretik hasita: Andoni Azkargorta, Manolo Vargas, Alex Ignacio, Alex Moreno, Mikel Jauregi eta Francisco Alvarez.

Argazkia: Andoni Azkargorta



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!




Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Jose M. Marín

pinturak - paper pinturak
sintasola - moketak - gaur
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxes: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Barceló



Bidaiak

Helbide berria
IBARGARAI 8

INAUGURAZIOA

Astelehenean
Martxoaren 1ean, 19:00etan.
Guztiok zaudete gonbidatuta

**Martxoaren 6an irteera Lyonera,
Reala ikustera**

Eskaintza bereziak Aste Santurako

Ile apaindegien gida

Zenbat urte daramatzazue orrazten?

Hamazazpi urte daramatzagu orrazten. Ikasketak bukatu eta lanean hasi ginen. Bizitza erdi baino gehiago.

Moda jarraitzen duzue?

Azkeneko tendentzien jarraitzaileak gara, gure lanean etengabe berritu beharrean gaude. Horretarako adibidez, Europako lau ferietara joaten gara edota sarritan, kurso berritzaileak egin behar izaten ditugu. Jendeak orrazkera pertsonalizatua nahi izaten du, azken finean, konfiantzazko norbait aholkuak emateko.

Ze nolako bezeroak daukazue?

Adin guztietako bezeroak daukagu, gizonezkoak zein emakumezkoak, baina gehienak gazteak dira.

Eta nortzuk dira ausartagoak?

Askotan, gezurra badijadi ere, jende nagusia gaztea baino ausartagoa izaten da, dena dela gazteen artean ere badago ausarta denik, ausardia kontua pertsonaren araberakoa da ez adinaren araberakoa.

Jendeak ondo zaintzen al du ilea?

Jendeak geroz eta garrantzi gehiago ematen dio ileari, egia da orain ilea gehiago zaintzen dela, hala ere, ez da nahikoa.



Eserita: Guef, Alazne, Maite eta Jessica: Ondoan zutik Miriam.

Bezeroei aholkuak ematen dizkiezue?

Noski, bezeroari ilea daukan, nola zaindu behar duen edota ze produktu erabili behar duen esaten diogu.

Ileko eta buru-azaleko tratamenduetan espezializatuta gaude eta bezero bakoitzari hobeto doakion produktua erabiltzen diogu.

Momentu honetan zer da gehien egiten duzuen?

Orain oso modan dauden flash colour-ak, (bi edo hiru kolore desberdin ematea) asko egiten ditugu.

Ile pertsonaren izaeraren ispilua al da?

Ez beti, batzutan pertsonaren daraman ilea eta bere izaera ez doaz lotuta.

ADATS

• Herri lagunak 4
BERGARA
• 943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

Aukera onenak



• Boni Laskurain 2
BERGARA
• 943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Ilerako tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Ile luzatzeak

disdira

• Masterreka 7
BERGARA
• 943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

IDOIA

• Espoloia 4
BERGARA
• 943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruzal garbitzea
- Solariuma

ileak

• Ozaeta 3
BERGARA
• 943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

• San Pedro 23
BERGARA
• 943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

KIZKUR

• Bolu 51
BERGARA
• 943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

• San Pedro 6
BERGARA
• 943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

• Ibargarai 42
BERGARA
• 943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

• Zurradero 2
BERGARA
• 943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

• Fraiskozuri 4
BERGARA
• 943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Klasikoa/modernoa
- Bizartegia
- Kolorea